

## EKOIZPEN MOTAK

### Orokorrean

1. AURREIKUSI: zer den gertatuko dena, non kokatuko diren pertsonaiak eta kamerak, taldekide bakoitzaren zeregina, mugimenduak... Nahiz eta errealizadoreak sarritan inprobisatu egin beharko duen.
2. PLANIFIKATU: Normalean aldez aurreko gidoi bat jarraituz egiten da lan. Ekintzak eta elkarrizketak entseatu eta planifikatu egingo dira, baita kameraren hartzeak, mugimenduak, argiztapena, soinua... ere.
3. ANTOLATU: Ekintzak eta elkarrizketak antolatuta daude, beharrezkoak diren elementuak eskuratu dira eta beharrezkoak diren proba teknikoak egiten dira.

### Produkzioan eragina duten faktore batzuk

1. Produkzio modua edo kamera kopurua: unikamera/multikamera (eta mistoa)
2. Produkzio prozedura: zuzeneko/aurrez grabatutakoa
3. Lokalizazioa: espazio naturala/estudioa

#### 1. KAMERA KOPURUA

- Kamera kopuruak lan unitatean dauka eragina eta lan guztia unitate horren inguruan antolatuko da.
  - Unikamera produkzio bateko lan unitatea plano da
  - Multikamerako lan unitatea blokea da (set bakoitzean bloke bat, egoera aldatzen bada bloke bat, gaia aldatzen bada bloke bat...)
- Unikamera errealizazioa askeagoa da. Kameraren kokapena, enkuadrearen tamaina eta objektiboen erabilera askeak izango dira
- Multikamera produkzio batean, kamera baten kokapena beste kameren posizioek baldintzatuko dute. Kamera guztietan zuri balantzea, plano motak, ardatzak, angeluzioak... ikus-entzunezko diskurtso berberari erantzungo diote.

#### Unikamera:

- Ikuspuntu anitza ematen du
- Ekintza eta hartzeak errepikatzen direnez jarraikortasuna eta raccord-a bermatu behar ditugu
- Kamera bakarrarekin errealizazio teknikak:
  - Planoz plano (ardatzak kontuan hartu behar dira)
  - Plano-sekuentzia (kamera eta pertsonaien koreografia prestatu beharko dugu eta kokapen markak jarri beharko ditugu)
- Muntaia errazagoa izan dadin, garrantzitsua da:
  - Errekurtso plano moduan erabili ahal izateko nahiko material izatea
  - Hartzeak errepikatzea plano eskaintza zabalagoa izateko
  - Arrera berezia eskaintzea jarraikortasunari eta raccord-ari
  - Sekuentziak lan egitean gidoia sekuentzia mekanikoetan banatzea
  - Pertsonaiek kamerarako antzeztea, hau da, hartzearen arabera mugituko dira
- Platotik kanpo unikamera erabili ohi da, fikzioan esaterako

**Multikamera:**

- Kamera bat baino gehiago erabiltzeak malgutasuna emango digu grabazioan, denbora gutxiago beharko dugu grabatzeko. Ez da beharrezkoa izango hartzeak errepikatzea
- Ekintza gelditu gabe planoen aniztasuna erraz lortuko da, ikuspuntu ezberdinetatik ekintza bera hartzeko aukera izango baitugu
- Irudien argia eta kolore tenperatura ondo kontrolatu beharko ditugu
- Kameren sinkronizazioa ezinbestekoa da
- Muntaia errazagoa da:
  - Zuzeneko errealizazioan ez dugu ia ezer muntatu behar
  - Kamera desberdinen irudiak konbinatuz efektu ezberdinak lortu ahal izango ditugu: superposizioak, pantaila zatikatuak...
- Multikamera normalean platoetan erabiltzen da

**Mistoa**

Produkzio motari dagokionez, mistoa izango da unikamera eta multikamera uztartzen baditugu. Esate baterako, albistegietan. Izan ere, plato barruan multikamera erabiltzen dugu eta kanpoko informazioa jasotzen dugunean unikamera.

**Produkzio prozedura:**

- ZUZENA: Programaren narratiba kontatzen ari garen gertakizunaren denbora berean gertatuko da, betiere aurreplanifikazio bat jarraituz. Gehienetan multikamera produkzioak izaten dira. Adibidez, debateak.
- AURREZ GRABATUA: Errealizazioa zuzenean bada ere emisioa beste denbora batean egiten da. Horregatik seinalea euskarriren batean grabatu behar da. Sistema honekin arazoak konpondu eta iraupena moldatu daiteke, baita langileen eta estudioen ustiapen egokia egitea ere. Adibidez, Gure Kasa.
- BLOKEKAKO GRABAZIOA: Ez da zuzenean grabatuko, blokeka baizik: irizpide ezberdinei jarraituz zatietan banatu eta zatitan grabatuko da (dekoratuen arabera, aktoreen arabera, argiaren arabera...). Honek ere aurrerago emititu ahal izateko euskarriren batean grabatzea eskatuko du. Adibidez, telesailak.
- ZUZENeko ERRETRANSMISIOA: Unitate mugikorra erabiliz, platotik kanpoko gertakizun baten errealizazioa da, eta gertaera gertatzen ari den toki eta denboran erakutsiko da. Erretsansmisio=transmisio bikoitza → unitate mugikorretik estazio nagusira eta handik ikuslearengana. Adibidez, albistegietan kanpoko informazioa jasotzen dugunean.
- AURREZ GRABATUTAKO ERRETRANSMISIOA: Zuzeneko erretransmisioa bezala, baina emisioa ez da grabatzen den une berean egiten.

**Lokalizazioak:**

- Estudioa:
  - Telebista estudioak: programak gauzatzeko propio pentsatutako espazioak
  - Studioko guneak:
    - Platoa
    - Errealizazio gela edo kontrol gela
    - Soinuaren kontrola
    - Jarraikortasun gela
    - Edizio eta postprodukzio gelak
    - Instalazio osagarriak

**PLATOA:**

- Ekintza gertatzen den espazioa
- Platoaren aurrekaria zinemako estudioa da
- Espazioa itsua eta diafanoa izaten da, zutabe, habe edo bestelako elementurik gabea
- Zorua laua eta mailakatua da, garabien sarrera ahalbidetzeko.
- Altuera minimo bat behar du, argiztapen sistema osoa zintzilikatu behar baita pantagrafoen bidez, argiztapen parrilan

**ERREALIZAZIO GELA EDO KONTROL GELA:**

- Bertatik errealizatzaileak eta talde teknikoak produkzio prozesua kontrolatzen dute
- Kontrolaren barruan lau gunek daude:
  - Produkzio gunea: programa bertatik zuzentzen da. Bertan lan egiten dute errealizatzaileak, errealizazio laguntzaileak eta bideo nahasleak.
  - Bideoaren kontrolerako gunea: bideo seinalearen kalitatea eta argiztapena kontrolatzen dira
  - VTR gunea: bertan erreproduktoreak daude. Aldez aurretik prestatutako bideoak bertatik bideratzen dira. Albistegietako albisteak, adibidez.

**SOINUAREN KONTROLA**

- Soinu guztien kudeaketa egiten da bertatik
- Mikroetako zein beste soinu erreproduktoreetako soinuak soinu-mahaitik pasatu, prozesatu eta bidali egiten dira emisiora edo grabatzeko euskarria
- Irudi eta soinuaren kontrol gelak banatuta egoten dira sarritan. Hala ere, interkomunikazio sistema baten bitartez errealizadorearen aginduak jasotzen dituzte.



**BESTE GELA BATZUK:**

- Edizio eta postproduzio gelak
- Grafismorako gunea
- Artxiborako gunea
- Ekipoen biltegia
- Dekoratuaren biltegia